

PROBA ESPEZIFIKOA

2019ko PROBA

GEOGRAFIA

PROBA

ERANTZUNAK





1.- Egin iruzkin bat irudi honi buruz (2,5 puntu)



Iturria: <http://compendium16.blogspot.com/2016/12/>

2.- Garatu gai hau (3 puntu)

Ingurumen-arazoak:


- Atmosferaren kutsadura
- Uraren kutsadura
- Desertifikazioa
- Deforestazioa

3.- Definitu kontzeptu hauek (hauta itzazu 3) (Guztira, 1,5 puntu)

- Gentrifikazioa
- Anplitude termikoa
- Antizikloia
- Jariatzea
- Ekintza antropikoa
- Smog-a



4.- Egin iruzkin bat klimograma honi buruz (3 puntu)



Iturria: <https://es.slideshare.net/pepem2>



EBAZPENA GEOGRAFIA (2019ko maiatza)

- **KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK**

Galdera bakoitzaren ondoren, dagokion puntuazioa ageri da. Guztira, 10 puntu dira.

- **EBALUATZEKO IRIZPIDEAK**

Irizpide orokorra

Erantzunen zuzentasuna, azalpenaren argitasuna eta kalitatea, egituratzea, lexikoaren kalitatea eta hizkuntzaren zuzentasuna baloratuko dira.

Irizpide espezifikoak

- Zehaztasunez, koherentziaz eta era ordenatu batean erantzuten die galderei.
- Zuzen interpretatzen ditu mapak, grafikoak eta estatistika-taulak.

- **EBAZPEN ORIENTAGARRIA**

1.-

Irudia industria-paisaia moderno bati dagokio. Industria-paisaia modernoak goi-teknologian edo energia berrietan oinarritutako industriak dauzkatena dira, eta hiritik urrun dauden eremu suburbanoetan kokatuta egon ohi dira.

Irudian ikusten den bezala, paisaia hau alubioi-lautada zabal baten erdian dago, ibai-ibar itxuraz zabal, azal eta ekintza antropikoak biziki degradatu batean. Mendixkaz inguratuta dago (haietako batzuk nekazaritzarako erabiltzen dira; adibidez, irudiaren goialdeko ezkerreko terrazak), eta, oro har, landaredian baso mediterranea da nagusi (arteak edo alepo pinua, erkametzak, artelatza, makiak). Zentral nuklearra nagusi ageri da multzo osoan, eta ibaitik gertu kokatuta dago, hozte-sistemarako ura behar baitu.

Bestalde, paisaia honetan ageri den industria mota energia-sektoreari dagokio, energia nuklearrari zehazki.



2.-

Ingurumen-arazo nagusiak gizakiak sortutakoak dira, eta hauek dira larrienak: airearen eta uraren kutsadura, desertifikazioa eta deforestazioa.

Atmosferaren kutsaduraren eragileak hauek dira:

1. Euri azidoa.
2. Berotegi-efektua.
3. Ozono-geruza suntsitzea.
4. Smog-a.

Uraren kutsaduraren kausak hauek izan daitezke:

1. Naturalak.
2. Antropikoak.

Kutsatzaileak mota hauetakoak izan daitezke:

1. Fisikoak.
2. Kimikoak.
3. Biologikoak.

Desertifikazioa lurzorua eta landaredia galtzeko prozesua da. Haren eragile nagusia gehiegizko higadurak dakarren giza ekintza da.

Deforestazioa giza ekintzaren eraginez landare-estaldura suntsitzea da. Kausa nagusiak hauek dira: alorrak eta larreak handitzeko luberritzeak; basoaren gehiegizko ustiapena; meatzaritza- eta industria-jarduerak, obra publikoak, hiri-hedapena eta, batez ere, baso-suteak.

Iturria: Edelvives argitaletxea

3.-

1. Gentrifikazioa

Hiri-eraldaketako prozesu bat da, berekin dakarrena sektore edo auzo hondatu eta pobretu bateko jatorrizko biztanleak erosahaldien handiagoko beste biztanle batzuek handik bidaltzea pixkanaka; prozesu horren ondorioz, berritu egiten da auzoa.



2. Anplitude termikoa

Zona bateko hilabeterik beroenaren eta hotzenaren batez besteko tenperaturen arteko aldea da. Handiagoa da klima kontinentalean eta txikiagoa ozeanikoan.

3. Antizikloia

1.013 mb-etik gorako presio atmosferikoa duen eskualdea; eguraldi lehorra eta zero oskarbiak ekartzen ditu, eta haize-igorlea da.

4. Jariatzea

Ura lur gainetik isurtzea grabitatearen eraginez.

5. Ekintza antropikoa

Gizakiak onura ekonomikoren bat lortzearren historian zehar ingurune naturalean egindako edozein ekintza.

6. Smog-a

Ingelesezko *smoke* (kea) eta *fog* (lainoa) hitzetatik eratorritako akronimoa. Kutsadura atmosferiko mota bat da.

4.-

Cartagena
Mediterranea. Subdesertikoa.

Oso prezipitazio txikiak, urtean zehar modu irregularrean banatuak. Urtarorik euritsuena udazkena da, eta prezipitazioen maximoak irailean eta azaroan dira. Urtarorik lehorrena uda da, eta uztailean du minimoa.

Temperaturari dagokionez, urteko batezbestekoa 17,6 °C da. Uda beroa da, eta abuztua da hilik beroena. Neguak gozoak dira. Anplitude termikoa 15,3 °C da, eta klima, oro har, muturreko erdiaridoa da.

Prezipitazioak oso urriak eta irregularrak dira, uda beroa eta negua gozoa, eta anplitude termikoa txikia da; beraz, klima mediterraneo subdesertikoa edo estepa-itxurakoa da.

Inguru elkorra da, erliebearen elementuek depresioetatik babesten dutelako eta zona horretan maiz sartzen direlako aire-masa lehorrak.

Iturria: <https://es.slideshare.net/pepem2/>



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK
2019ko MAIATZA
GEOGRAFIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS
MAYO 2019
GEOGRAFÍA

**PROBAKO GALDEREN ETA EZAGUTZA-MULTZOEN ARTEKO
ERLAZIOA**

GALDERA	EZAGUTZA-MULTZOA
1. galdera	1. multzoa
2. galdera	4. multzoa
3. galdera	1. multzotik 5.era
4. galdera	3. multzoa